



kirol jardueren babesak

zerga-onurak 2018rako

Onura gehiago kirola eta emakumea egitasmoendako 2018. urtean

Abenduaren 28koa 26/2016 Foru Legeak, sozietateen gaineko zerga, arautzen ditu zenbait zerga eta beste tributu batzuk laugarren kapituluaren, atal bigarrena, hirurogeita hiru artikuluan. Horrela 2017 eta 2018. urtetan hasitako zergaldietarako, interes sozialekoak deklaratuak kiroleko, kulturako eta gizarte-laguntzako jardueren babes-kontratuen ondoriozko publizitate-gastuengatik ordaindutako kopuruen ehuneko 30etik 40ra bitartean.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera publizitate gastuetan ezarriko den ehuneko 40koa izango da, ekintzen babesletza kontratuetatik etorritakoak edo gizarte-intereseko kirol lehiaketatzen jotzen direnak eta emakumeek soilik parte hartzen edo lehiatzen direnak izan beharko dira, eta kenkariaren oinarriaren zenbatekoa kontuan hartu gabe (hirugarren atala, abenduaren 27ko 16/2017ko Foru Legearen 27. apartatua, Zerga desberdinen eta beste Zerga Neurri batzuen aldaketarena). Horretarako, izenpetuko den babesletza kontratuak egiaztatu beharko du aipatutakoa.

Aipatutako ehuneko helburu hartuta, babesletza kontratuak aldirerako modura hartzen baldin baditu jardun edo kirol lehiaketak non emakumeak bakarrik lehiatzen diren eta beste batzuk gizonezkoak bakarrik edo mistoak direnak, gizarte-intereseko den adierazpena egingo duen eskatzaileak, eskaera egin aurretik, emakumezkoek bakarrik parte hartzen edo lehiatzen diren aipatutako jardun edo kirol lehiaketen babesletza publizitate gastuen zatia egiaztatu beharko du.

Kirol jardueri dagokienez, azaroaren 13ko 356/2000 Foru Dekretuak zenbait kirol jardueraren interes sozialaren deklarazioa arautzen du. Interes sozialekoak deklaratu daitezkeen jarduerak.

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak, interes sozialekoak deklaratzeko ahal ditu zenbait kirol jarduerak, haien publizitatean inbertsioa egin dadin sustatzeko, trukean desgrabazio fiskal garrantzitsuak emanez, eta, ondorioz, Nafarroako talde eta kirolarientzako finantzabideak lortzeko.

Aipatutako deklarazio horretan zuzeneko interesa duten pertsona, entitate eta erakundeek eskatzen ahal dute interes sozialekoak deklaratzeko.

INTERES SOZIALEKOAK DEKLARATU DAITEZKEEN JARDUERAK

- > Nazioarteko proba edo lehiaketak.
- > Proba edo lehiaketa nazionalak.
- > Nafarroako proba edo lehiaketak.
- > Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak antolatutako jarduerak
- > Nafarroan antolatzen diren beste kirol jarduerak batzuk, kirol maila altukoak badira, tradiziozko kirol bat errekupe-ratzeko asmoa badute, gizartean oihartzun handia baldin badute, herritarren parte-hartze handia badute edo interes sozial kualifikatua edukitzeko ezaugarriak baldin badituzte, hori guztia NKGIaren iritziz.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- > Interes soziala deklaratzeko ESKAERA (ESKABIDE ORRIA).
- > BABES-KONTRATUA: babesleak eta babestuak sinaturiko kontratuaren kopia kautotua.
- > Egin gogo den kirol jarduera AZALTZEN DUEN TXOSTENA (egutegia, eta abar).
- > FEDERAZIOAREN LIZENTZIA: fotokopia konpultsatua, kirolariari bakarka emandako babes baldin bada.

EPEA

Eskaera aurkezteko epea: interes sozialekoa deklaratu nahi den kirol jarduera noiz egiten den, hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen.

OHARRAK

- > Publizitate kontratu guztietan, Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorraren 22. artikulua hartu beharko da kontuan. Publizitaterako babes-kontratuaren bidez, babesleak diru-laguntza ematen du babestuaren kiroleko, ongintzako, kulturako, zientziako edo bestelako jardueren baten truke, eta babestuak, trukean, babesleari publizitatea egiteko konpromisoa hartzen du.
 - > Enpresa babesleak, nahi badute %30etik %40ra bitarteko kenkaria izatez gero, kontuan hartu beharko dute zein egunetan aurkeztu behar duten sozietateen gaineko zergaren aitortpena, interes soziala deklaratzeko eskaera garaiz egiteko.
 - > Babesa kontratuak zerbitzuen presaketak dira. Hori dela eta BEZA eraman behar dute (% 21 a oraingoan)
 - > Babesle kontratuak egiten dituztenek (Kirol Entitate edo pertsona fisikoek) faktura egin beharko dute. Faktura horretan zenbateko garbia gehi BEZA agertuko da. Bezaren kantitatea sartuko da Nafarroako Ogasun Zerga Departamentuan dagokion hiru hilabetekoari. Kontuan izanda noiz egin den publizitatearen faktura. Guzti hori egingo da Ogasun Legedearen arabera.
- Patrozinio kontratuak egiten dituzten guztiok 182 eredu bete behar dute. Eredu hau aurkezteko epea otsailaren Sean bukatuko da. 182 eredu azalduko dira joan den urtean egindako kontratu guztiak. Agindu Forala 4/2016, urtarrilaren 18koa.
- 25.000€ baino gehiago duten kirol entitate guztiak patrozinioan sozietateen gaineko zergaren aitortpena egin behar dute (Abenduaren 28koa 26/2016 foru legeak, 75.3 artikuluan).

KIROLA BABESTEKO KONTRATU-EREDUAK (Oharrak ikusi) KLUBA / FEDERAZIOA

Kirolariak bakarka ere sina ditzakete babes-kontratuak.

(e)n, 20....., (e)ko.....aren..... (e)an.....

BILDURIK

Batetik (IZENA eta BI ABIZEN),
jauna/andrea, adinez nagusia, NANa duena, , -ren.....
....., ordezkarari (ENPRESAREN IZENA). Enpresaren IFZ:
Enpresaren helbidea., kalea....., Zbk....., Posta kodea
Entitate babeslearen duen kargua: (LEHENDAKARIA, KUDEATZAILEA,...)
como entidad patrocinadora.

Bestetik (IZENA eta BI ABIZEN).....
jauna/andrea, adinez nagusia, , NAN zenbakia duena,
-ren ordezkarari (FEDERAZIOA / ELKARTEA) , IFZ:
Helbidea , kalea , Zbk , Posta kodea
Kirol Elkartearen Erregistroko zenbakia: , Entitate babeslearen LEHENDAKARIA / KUDEATZAILEA

Bi aldeek behar adinako gaitasun legala aitortzen diote elkari babes-kontratu honetarako, eta honako klausulen arabera gauzatzeko dute kontratua

KLAUSULAK

1a.....
2a.....
3a.....
4a.....

Klubak eta enpresa babesleak adostutako klausulak izan behar dute, baina betiere gutxienez honako gai hauek zehaztuta:

- kontratuaren helburua: babeslearen kirol jardueraren izena eta edukia.
- enpresa babesleak egindako diru-ekarpena (Zenbateko garbia + BEZA).
- babeslearen klubak truke eskaintzen duena.
- Iraupena zehaztu eta kontratuaren helburua ezarri.

Eta adostasunaren erakusgarri, honako kontratua sinatzen dute goian jarritako datan eta tokian.

Enpresaren sinadura eta zigilua (orrialde guztietan)

Klubaren sinadura eta zigilua (orrialde guztietan)

KIROL JARDUEREN BABESA

ADIBIDEA

Helbidea Tuteran duen "X, S.L." enpresak saskibalo talde bat babestu du 2018. urtean, 4.000 euro emanaz, eta zuzen tramitatu du jardueraren interes sozialeko deklarazioa; sozietateen gaineko zergari dagokion aitortpen hau aurkeztu du:

Beraz, babes-kontratuaren inbertitutako 4.000 euroek bi eragin positibo dituzte zergadunarentzat: batetik, zerga-oinarrria gutxitzen du, enpresa-jardueraren gastuak hartzen delako; eta, bestetik, ordaindutakoaren %30 deskontatzen da kuota osotik.

DIRU-SARRERAK

Salmentak65.000
Finantza diru-sarrerak2.100
GUZTIRA67.100

GASTUAK

Erosketak43.200
Askotariko gastuak7.800
BABES-KONTRATUAREN PUBLIZITATEA4.000
GUZTIRA.....55.000

ZERGA-OINARRRIA12.100
KARGA-TASA%28 (*)

KUOTA OSOA 3.388

KIROLA BABESTEKO
INBERTITUTAKOAREN KENKARIA1.200

OGASUNARI ORDAINDU BEHARREKO KUOTA 2.188

(*) Entitateari ekitaldi horretan dagokion tasa.